

Gogoeta egiteko galderak:

Denbora: 30 minutu.

- Nola defini daiteke Nazio Batuak abian izan diren hamarraldietan emakumeek garapenean izan duten esku-hartzea? Zergatik?
- Emakumeak garapenean “integratzeak” generoen arteko botere harremanak aldatu ditzake?
- Gaindituta al dago Emakumeak Garapenean izeneko korrontea?
- Nola bultzatu litezke Hegoaldeko emakumeentzako jabekuntza prozesuak?
- Eztabaidatu Jodi L. Jacobson-en baieztapen hau:

“Genero bereizkeria txirotasunaren arrazoi nagusia da, era batera edo bestera, galarazi egiten diolako milioika emakumeri hezkuntza, prestakuntza, osasun zerbitzuak eta haurrentzako beharrezko arreta jasotzea; gainera, egun dauden txirotasun egoeratik ihes egin ahal izateko beharrezko lege statusa ere ukatzen die”.

Jatorria: Erakundeak berak egina.